

Funtsezko jarduerak

Gure enpresaren funtsezko jardueren barruan, hiru atal bereizten ditugu: produkzioa, arazoak konpontzea eta plataformako edo sareko jarduerak.

Produkzioari dagokionez, gure produktuen diseinua sartzen da. Guk, arropa egingo dugunez, garrantzitsua izango da diseinuaren atala gure produktuak lehiakideengandik bereizteko. Hortaz aparte, produktua zer kantitatetan ekoitzi behar dugun erabaki behar dugu. Hasieran, kantitatea txikiago izango da, eta enpresa ondo funtzionatzen badu, kantitate hori igo egingo da. Produktuen kalitatea ezinhobea izateko, ekoizpen prozesua kontuan hartu behar da. Modu efizienteen egingo dugu lan, hau da, ditugun baliabideekin ahal dugun produktu hoberena ekoitzi. Azkenik, produktuak bezeroen eskuetara iristeko, produktuen entrega produkzioaren barruan sartzen da. Enbalajea ahalik eta efizienteena izango da, produktua ez hausteko.

Arazoak konpontzeari dagokionez, guk aholkularitza zerbitzua eskainiko dugu, kontsumitzaileak osasuntsuago egoteko. Aplikazioa erabiltzen dutenek, aukera izango dute aholkularitza zerbitzua jasotzeko, dituzten arazoei aurre egiteko.

Azkenik, sareko jarduerari erreparatuz, gure webgunea eta aplikazioa nabarmentzen dira. Alde batetik, plataformaren gestioa eta mantenua kontuan hartu behar da. Horretarako, aplikazioa garatuko digun enpresak ere aplikazioaren mantenua bermantzen du.

Ander Aizpurua, Ander Alonso, Olaia Oca, Eñaut Romero eta Jon Sierra